

## HELDU DA EGUNA

Unai Lires Arrieta, 15 urte

*Ondarroa*

Mamadou eta Mohamed erbestera doaz,  
Ama lurra atzean utzi eta bizitza hobeago baten bila.  
Agurtu dituzte seme-alabak  
Agurtu emazteak  
Lehenbailehen bueltatuko direla esanez  
Baretu dira beraien kezkek.

Heldu da eguna  
Gaba iluna  
Sartu dira kaiukoan  
Hogei arima  
Barne samina  
Hori daramaten zama.

Itsasoratu dira eta biratu dute burua  
Bizitza osoko herrixkari azken begirada  
Baina gaua da, eta leihoetako argiak baino ez dira  
ikusten.  
Begiak itxi eta inguruaren irudi bat marraztu dute.  
Berehala, malkoak erori zaizkie  
Atlantiko itsaso ikaragarrira.

Mila bat baino urrundu ez eta lehenengo ustekabea  
Abdulhamedek salto egin du bat-batean uretara.  
Igeri doa kostaldera, famili epeltasunera  
Itzultzeko esan diote, itzultzeko batelera.  
Ilusioak bertan behera joan zaizkio  
Harria uretan hondoratzen den erara.

Heldu da eguna  
Gaba iluna  
Hortxe doaz kaiukoan  
hemeretzi arima  
Barne samina  
Hori daramaten zama.

Eguraldia kontra jarri da, haizea hotz bihurtu da  
Hozbera horrek esnatu ditu olaturik bortitzenak  
Goitik behera bustita daude  
Nekea ere itzela da  
Esfortzu handia eskatzen baitu  
Ontzi barruan mantentzeak.

Baga handiak besarkatu du Mohamed ezustean  
Zuhaitza errotik ateratzen den moduan urak gizo-  
na du eraman  
Biharamunean gaixorik zeudenak  
Kontatu beharra zegoen  
Bi izan ziren arrazoi horregatik sakrifikatu beha-  
rrekoak  
Galdu dira ur beltzean haien gorputz ahulduak

Heldu da eguna  
Gaba iluna  
Noraezean kaiukoa

hamasei arima  
Barne samina  
Hori daramaten zama.

Eguzki izpiak ageri dira hirugarren egunean  
Badirudi zerbait dagoela apartean, zeruertzean  
Irlak direla, penintsula dela, ilusioa piztu da  
Arraunari ekin diote zimeldutako makilekin  
Aurrera doaz boga eta boga  
Gizajoak gelditzen zaien indarrekin

Pozak gailendu ditu naufrago gaixoak  
Antsiatutako lurra azkenean zapaltzean  
Baina beraien zorion oihuek salatu dituzte koita-  
duak  
Eta guardia zibilak harrapatu ditu lau lagun hel-  
tzean  
Beste hamabiak ihesi doaz penaz noraezean  
Ametsen bila, bizitza bila, herritarren izenean.

Heldu da eguna  
Gaba iluna  
Bertan behera kaiukoa  
Hamabi arima  
Barne samina  
Gure laguntzaren eskean.